

Auto berria erosteko aukera ona

Ibilgailu zaharra baztertu eta berria erosteko, dirulaguntza bereziak eskaintzen ditu Prever planak

Ibilgailuen salmentak sustatzeko Espainiako Gobernuak akuiluarekin eragin du merkata, eta 80.000 pezetako dirulaguntzak eskaintzen dizkie ibilgailu zaharrak baztertu eta berriak erosten dituztenei. Gobernuaren laguntzek animatuta, auto eta gainontzeko ibilgailuen egileek beherapenak ezarri dizkiete eskaintzen dituzten ibilgailu gehieni.

AUTO ZAHARRA baztertu eta berria erosi nahi duenak aukera ona du orain, Espainiako Gobernuak zein autogileek beherapenak eskainiko baitizkiote. Hamar urte baino gehiagoko autoa txarretara bota eta berria erosten dutenek 80.000 pezetako dirulaguntza jasoko dute berria matrikulatzean. Auto berria zaharra baztertu eta sei hilabete baino lehen erosi behar da dirulaguntza jasotzeko, eta zaharra txarretara bota dela adierazten duen agiria aurkeztu behar da. Uzten den autoa bigarren eskukoa bada, dirulaguntza jaso ahal izateko frogatu egin behar da auto haren jabea izan dela urtebetez gutxienez.

Furgoneten kasuan sei tonako ibilgailu industrialak edo furgoneta berria erosten bada dirulaguntza 80.000 pezetakoa da era berean, baina furgoneta zaharrak zazpi urte izan behar ditu gutxienez, ez hamar autoen moduan. Arrazoiak: ibilgailu industrialek auto partikularrek baino jardueragoragoa izaten dutela eta azkarrago hondatzen direla. Ibilgailu eta furgoneta industrialen kasuan beherapena fabrikatzaileak edo inportatzaileak emango du eta Elkarteen Zergatik kendu ahal izango dute.

Prever planak aldaketak ekarri ditu motorren merkaturan ere. 250 zentimetro kubiko bitarteko motor berrietan ez da matrikulazio zerga ordaindu behar (% 12).

Prever plana mugagabea da, hau da, ez da finkatu dirulaguntzen eta neurrien bukaera datarik. Planaren helburua auto za-



Auto berria erosteko garaian, auto zaharragatik dirulaguntza bereziak eskaintzen ditu Prever planak.

harren portzentaia jaitea da, Espainiako autoen herenek (bost milioi inguru) hamar urte baino gehiago baitituzte; auto guztien laurdenek, berriz, hamabost urte baino gehiago.

Europako Batasunak beruna duen erregaia ezabatzeko apostua egin du eta Prever planak lagundu egingo du beruna era-

AUTO EGILEEN BEHERAPENAK (pezetatan)

CITROEN Autoak: 250.000-450.000 **Ibilgailu komertzialak:** 100.000-400.000 -**FIAT Punto:** 300.000 **Bravo:** 300.000 - **FORD Fiesta:** 200.000 **Scort:** 100.000-250.000 **Mondeo:** 75.000-100.000 - **OPEL Corsa:** 200.000-300.000 **Astra:** 150.000-400.000 **Vectra:** 75.000 -**PEUGEOT 106:** 200.000 **306:** 350.000 **605:** 200.000 - **RENAULT Clio:** 250.000 **Laguna:** 400.000 - **VOLKSWAGEN Polo:** 200.000 **Golf:** 100.000-250.000 **OHARRA:** Prezioak gutxi gora-beherakoak dira eta aldatu egiten dira auto motaren arabera.

biltzen duten autoak merkatutik baztertzen. Hala ere, gaur egun Espainiako autoen hiru laurdenek super erregaia erabiltzen dute, eta ez dirudi, epe motzean edo erdian behintzat, aldaketa izugarria izango denik.

Juan Mari Lopez Osa Gipuzkoako Automozio Elkartearen idazkari nagusiaren iritziz, Pre-

SOLOZABAL
AUTOESKOLA
GARRAIO ESKOLA

Baimenak:

ziklomotorrean ibiltzeko
motorra: A1 - A2
turismoa: B1
zerbitzu publikoa: B2
kamioia: C
trailerra: C2
mikrobusa: D1
autobusa: D
erremolkeak: E

Ikastaroak:

- merkantzia arriskutsuen garraiorako
- merkantzien garraioan trebatzeko
- bidaiarien garraioan trebatzeko
- garraio agentzietan lan egiteko
- nazioarteko garraioetarako prestatzeko
- birziklatzeko eta lanerako prestatzeko

Garraiatzeko prestakuntza mota guztiak

Deba 191108
Eibar 702384
Lekeitio 6841800
Markina 6166560

Mutriku 604135
Ondarroa 6832638
Zumaia 861416
Zumarraga 726097